

MONS. IGNACIO LARRAÑAGA
ALDABA-KO OBISPOA (G.B.)

Larrañaga ta Lasafar Inazio Gotzai Jaun Agurgarria (G.B.), Aldabako elizatxo politean eortzi dute, Aralar-i begira bertako aldare nagusipean sartuta. Guk geienok gotzai agurgarri ezagutu degu. Abiño etzan beti obispo izandakoa. Aldabako Martin-motzaneko baserri ederrean jaio zan 1892-go Urria-ren 4-an. Apaiztu zan, berriz, 1919-go Apirilla-ren 10-an eta Riveri jaunak gotzai sagaratu zun 1950-go Garagarrilla-ren 25-an. Azkenik Ondarrabi-ko Kaputxinotarren lekaidetxean azken-arnasa eman du, joan dan Otsailla-ren 18-an. Jaunak berekin beza.

Ikasle ta irakasle Altsatsu-n, Lekaroz-en, Ondarrabi-n, e.a. ibillitako gizona. Oraindik praille gazte, Kaputxino-bizardun-sasoikoa zala, ain zuzen 36 urte zitula, 1926'an, China'runtz itsasoz zijoan misiolari. Eta bere ustez betiko zijoalarik, (emen utzirik guraso-senideak, jaiotetxe, sorterri, adiskide, oitura, Euskalerra e.a.) geroko orren berri eztakigu-ta, bere aitari itxasontzitik karta bat egin zion lau bertsoan. Ara emen lauak:

—I—

*Agur, nere biotzeko
 Aitatxo maitea,
 Nere gogoaz noa,
 Konzola zaitea.
 Jainkoak, bada, nai du
 Ni urez joatea...
 Aita, zertarako da
 Negar egitea?*

—II—

*Jaungoikoak deituta
 Nintzala gaztea,
 Aspaldi utzi zindudan
 Naigabez betea.
 Jainkoari zenion
 Eman zuk semea.
 Bera da nere Jabe...
 Alaitu zaitea.*

—III—

*Agur, nik maite nuan
 Euskaldun erria...
 Agur nere senide...
 Agur baserria...
 Zuk emanak nituan,
 Jainko maitatia,
 Pozik Zuk eskatuta,
 Damaitzut guztia*

—IV—

*Zuk ordaiñez betiko
 Semetzat ar nazu.
 Nere senide, aita,
 Ta ama bakarra Zu.
 Bakartasun aldian
 Nere ondoan Zu;
 Eriotzako orduan
 Nitzaz errukitu.*

Joan Bautista